



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DOWN SINDROME FUNDAZIOAREN PLAN ESTRATEGIKOA (2022-24)

XEDEA

Gure misioa adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea da, euren eskaeretatik abiatuta kalitatezko laguntzak eskainiz, betiere eskubide osoko pertsona gisa erabat gizarteratzen eta gizartean parte hartzen laguntzeko.



IKUSPEGIA

Euskal Herriko Down Syndrome eta Beste Adimen Urritasunen Fundazioa erreferente izatea nahi dugu adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat bizi-ziklo osoan, eta, horretarako, programa eraginkorrak, iraunkorrak, berritzaileak eta adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen eskaera eta premietara egokituak garatu behar dira.

Fundazioarentzat erreferente izateak esan nahi du adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak, haien familiek eta gainerako erakunde eta instituzioek aktiboki beren eskubide indibidual eta kolektiboen defentsa babesten duen eta beren bitza-proiektu indibidualizatuaren garapenean inplikatzeko erakunde gisa ikusten gaituztela adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea, autonomia eta bizimodu independentea lortzeko helburuarekin, eskubide osoko pertsona gisa.




BALIOAK

- Pertsonetikiko konpromisoa, ulermena eta hurbiltasuna.
- Adimen- eta/edo garapen-desgaitasuna duten pertsonetikiko errespetua eta defentsa.
- Esperientzia, gaitasuna eta berrikuntza.
- Etengabeko hobekuntza.
- Gardentasuna.
- Sareko lana.
- Genero berdintasuna.



ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GARATU BEHAR DIREN EKINTZAK:

- 1.-Adimen-urritasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat gure erreferentziazko rola sustatzea eta zabaltzea bizi-ziklo osoan.**
- 2.-Programak hobetzea eta programa berritzaile berriak garatzea.**
- 3.-Iraunkortasun ekonomikoa eta eraginkortasuna hobetzea.**
- 4.-Lidergo kolektiboa eta erakundearekiko lotura indartzea.**
- 5.-Ikusgarritasuna eta fundazioaren lana sustatzea kanpora begira.**
- 6.-Sareetako presentzia handitzea, lankidetzak-itunak sortzea.**



ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GARATU BEHAR DIREN EKINTZAK

1.- Adimen-urritasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat gure erreferentziazko rola sustatzea eta zabaltzea bizi-ziklo osoan.

1.1 Zerbitzuetan FSDPV-PcP metodologia ezartzea, % 100era iritsi arte.

1.2. Eskura dagoen informazio guztia informatizatzea eta profesionalen, erabiltzaileen, familien eta interes-taldeen eskura jartzea.

1.3 Ezagutza eta praktika onak kanporatzea.



ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GARATU BEHAR DIREN EKINTZAK

2.- Programak hobetzea eta programa berritzaile berriak garatzea.

2.1 Zerbitzuen eta programen dinamikan kudeaketa-tresna teknologikoak txertatzea.

2.2 Beste erakunde batzuen praktika arrakastatsuak esploratzea, identifikatzea, bultzatzea eta ezartzea.

2.3 Familia-sarea sortzea eta indartzea, enprekin harremanak ezartzeko, ohiko enpleguetan erabiltzaileak kontratatzen laguntzeko.

2.4. Adimen-desgaitasuna duten pertsonen zahartzearen arloan lan egitea, autonomiaren, enpleguaren eta bizi-kalitatearen ikuspegitik.



ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GARATU BEHAR DIREN EKINTZAK

3.- Iraunkortasun ekonomikoa eta eraginkortasuna hobetzea.


3.1 Sarrera pribatuak fidelizatzea eta berriak lortzea, sentsilizazio-kanpainen eta ekitaldien bidez. Europako funtsetatik datorren finantzaketa publikoa sartzea.

3.2 Gastua kontrolatzeko ildoak: programen, diru-sarreraren eta gastuen kontabilitate analitikoaren araberako hileko itxierara itzultzea.

3.3 Eraginkortasunera bideratutako ildoak. CMI bat ezartzea, hilero, Patronatuarentzat.

3.4 Patronatuak gerentziari ematen dion laguntza sendotzea, diru-sarrera publikoak zein pribatuak handitzeko.

3.5 Komunikazio-planetik eratorritako bilketa-kanpainak.



ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GARATU BEHAR DIREN EKINTZAK

4.- Lidergo kolektiboa eta erakundearekiko lotura indartzea.

4.1 Erabiltzaileentzako eta familientzako ate irekien eta bizikidetzaren jardunaldiak, bai eta profesionalentzako bizikidetzak eta ekitaldiak ere.

4.2 Profesionalen prestakuntza eta sektoreko ekitaldietan parte hartzea bultzatzea.

4.3 Fundazioarekiko familien partaidetza aktiboa sustatzea.

4.4 Boluntarioaren figurak erakundearen duen garrantzia eta presentzia handitzea, boluntarioaren prestakuntza sustatuz erakundearen profesional batekin.



ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GARATU BEHAR DIREN EKINTZAK:


5.- Fundazioak kanpora begira egiten duen lana eta ikusgarritasuna sustatzea.

5.1 On-line kanala indartzea (webgunea eta sare sozialak), jarduera propioak eta jardunbide egokiak hedatzeko.

5.2 Plan estrategikoarekin bat datorren komunikazio-plana ezartzea eta baliabideak ematea.

5.3 Adimen- eta garapen-desgaitasunari buruzko erreferentea izatea Euskadin.

5.4. Adimen-desgaitasuna duten pertsonen presentzia aktiboa duten harreman politiko eta instituzionalen agenda ezartzea.



ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GARATU BEHAR DIREN EKINTZAK :

6.- Sareetako presentzia handitzea, lankidetzak sortzea.

6.1 Zubiak eraikitzeke funtsezko estamentuak identifikatzea (erakundeak, fundazioak, enpresak, komunikabideak) eta ildo horretako lan-egutegia ezartzea.

6.2 Osasun-zentroak identifikatzea eta haiekin lankidetzan aritzea sinergiak lortzeko.

